


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %-0,4 jaitsi ziren 2009ko otsailean aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2009ko otsaila, 2008koarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuek %1,9ko gehikuntza izan dute.

Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizeak %-0,4 jaitsiera izan du 2009ko otsailean, aurreko hilaren aldean; horrela, hilabete horretako urte arteko tasa %1,9raino igo da, EUSTATEN datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2009



(*) Gehikuntza otsaileko urte artekoa da
Iturria: EUSTAT

2009ko otsailean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %-0,5 jaitsi dira.

Otsailean Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez, aurreko hilaren aldean. Eraikuntzaren atalean %-0,5eko jaitsiera eta Obra Zibilarenean %-0,7. Urteko bilakaeran badira alde nabarmenak: Eraikuntzako lehengaien kostuak %+3,0 hazi ziren; Obra zibilekoak, berriz, %-3,0 jaitsi.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasarik handienak izan dituztenak ondokoak izan dira: Ura (%7,4), Ez-metalezko meak (%6,9), Altzarigintza (%6,0); Industria kimikoa (%3,2). Aitzitik, urteko prezioetan (2009ko otsaila, 2008koaren aldean) murrizketak izan dituzte Petrolioa fintzearen (%-30,3), Metalurgiaren (%-6,9) eta Energia elektrikoa eta gasaren (%-0,9) lehengaiak.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA. 2009KO OTSAILA.

GOIBURUAK	INDIZEA 2005= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	117,2	-0,4	1,9	0,6
ERAIKINAK	117,8	-0,4	2,8	0,6
OBRA ZIBILA	115,2	-0,5	-1,7	0,4
LEHENGAIEN KOSTUA	116,7	-0,5	1,7	0,2
ERAIKINAK	117,5	-0,5	3,0	0,3
OBRA ZIBILA	113,8	-0,7	-3,0	-0,2
LAN-ESKUAREN KOSTUA	119,0	0,0	2,1	2,1

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp